

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituenaren 9 zenbakia duen ordenantza aldatzea. (Espediente: 2026/3918)

Laudioko Udalbatzak, 2026ko abuztuaren 31 egunean egin zuen osoko bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz Udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituenaren 9 zenbakia duen ordenantza aldatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.a) artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da aldaketa horren erabakia, eta ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera aplikatuko da:

**“Gaia: Aldatzea 9. ordenantza. Adinekoentzako Udal Jantoki
Zerbitzuari buruzko XIII. atala ezartzea**

Laudioko biztanleriaren zahartzea, zalantzarik gabe, herriaren egitura sozial eta demografikoa aldatzen ari den fenomeno da. Bizi-itxaropena handitu eta adinekoen kopurua handitu ahala, ezinbestekoa da, arreta- eta zaintza-premiei erantzuteaz gain, zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzen duten politikak hartzea, eta eguneroko bizitzako jarduerak beren kabuz luzatzen saiatzea.

Proposatzen diren gizarte-politikek inklusiboak izan behar dute, eta, aldi berean, adinekoen aniztasuna kontuan hartu behar dute. Horietako askok, gaixotasunarekin edo mendekotasunarekin lotutako zailtasunei aurre egin diezaieketen arren, aberastasun handia dute bizi-esperientziari, ezagutzei, trebetasunei eta gizartean aktiboki parte hartzen jarraitzeko nahiari dagokienez ere.

Horregatik, adinekoentzako jantoki-zerbitzu bat jarri nahi da martxan, menu edo dieta orekatu bat ahalbidetzeko, zerbitzua eskatzen duen pertsonaren egoera sozioekonomikora egokitutako prezioan. Adineko pertsonen presentzia sustatzea beren ingurunean, eta bizi-kalitate ezin hobea bultzatzea. Era berean, zerbitzu hori erabiliko duten adinekoek modu autonomoan jateko gaitasuna izan behar dute.

Zerbitzua emateko ezinbestekoa da adinekoentzako jantoki-zerbitzua arautzen duen udal-ordenantza bat eta dagokion prezio publikoaren erregulazioa.

Helburu horrekin, Udal honetako Gizarte Kohesioaren arloak honako hau proposatu du:

Prezio publikoak arautzen dituen 9. ordenantzaren eranskina aldatzea, eta, zehazki, atal hau sartzea:

XIII. Adinekoentzako Udal Jantoki Zerbitzua ematea.

Prezio publikoak onetsi edo aldatzeko prozedura Foru Gobernu Kontseiluak irailaren 29an emandako 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onestekoaren 52. artikuluan ezarritakoa da, hots: “prezio publikoak ezartzea edo aldatzea Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz”

“Indarrean dagoen legeria” horri dagokionez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onestekoaren 47. artikulura jo dezakegu, prezio publikoak ezartzeari dagokionez honako hau jasotzen baitu: “prezio publikoak ezartzea edo aldatzea Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio, hargatik eragotzi gabe Gobernu Batzarrari eskuordetzeko dituen ahalmenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.2.b) artikuluen arabera”

Udaleko idazkari nagusiaren 2026ko abuztuaren 18ko txostena erantsi zaio espedienteari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta aldez aurretik Osoko Bilkurako Gaiaren eta Mozioen Batzorde Informatibo Iraunkor Iraunkorraren irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Udal zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen 9. ordenantzaren aldaketa onartzea. Hurrengo ataleko XIII. atala ezarriko da, erantsitako dokumentuan adierazten den bezala.

XIII Adinekoentzako Udal Jantoki Zerbitzua.

BIGARRENA. Argitaratzea Erabakiaren testu osoa ALHAO-n eta udaletxeko iragarki-oholean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 45.1.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta adieraztea testua argitaratzen den egun berean sartuko dela indarrean."

Erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Laudio, 2026ko irailaren 1a

Alkate-Udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ

ERANSKINA

XIII. ADINEKOENTZAKO JANTOKIKO UDAL-ZERBITZUA EMATEA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Laudioko Udaleko adinekoentzako jantokiko udal-zerbitzuaren prezio publikoak arautzea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza hau dagokion adinekoentzako jantoki-zerbitzuaren ordenantzan araututako udal-zerbitzuaren onuradun guztiei aplikatuko zaie, kudeatzeko modua edozein dela ere.

3. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Prezio publikoa ordaindu beharko dute adinekoentzako jantokiko udal-zerbitzuaren erabiltzaileek edo onuradunek.

2. Erabiltzaileak edo onuradunak jarduteko gaitasunik ez badu, haren legezko ordezkariak ordaindu beharko du.

4. artikulua. Prezio publikoa

Adinekoentzako jantoki-zerbitzuagatik 7,00 euroko prezioa ezarri da menu bakoitzeko.

Prezio publiko horretan ez da sartzen Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta sortzapenaren unean indarrean dagoena aplikatuko zaio.

5. artikulua. Prezio publiko murriztuak eta horien aplikazioa

1. Prezio publiko murriztuak esleitzeko, honako kontzeptu hauek erabiliko dira: bizikidetza-unitatea eta gehieneko errenta bermatua, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak (25. eta 32. artikulua) eta hura garatzeko araudian diru-sarrerak bermatzeko errentarako ezarritakoak.

Kontzeptu horiei definizioan egindako aldaketak aplikatuko zaizkie, prezio publikoa sortzeko unean indarrean dauden arau-aldaketen bidez; eta, gainera, haien zenbatekoak EAEko aurrekontu orokorren bidez eguneratuko dira.

2. Onuradunek edo erabiltzaileek 3,00 euroko prezio publikorako eskubidea izango dute, baldin eta haien bizikidetza-unitateak, sortzapenaren unean, gehieneko errenta bermatua baino diru-sarrera txikiagoak jasotzen baditu.

3. Onuradunek edo erabiltzaileek 4,00 euroko prezio publikorako eskubidea izango dute, baldin eta haien bizikidetza-unitateak, sortzapenaren unean, gehieneko errenta bermatuaren pareko diru-sarrerak baditu eta 1,5 halako baino txikiagoak jasotzen baditu.

4. Onuradunek edo erabiltzaileek 6,00 euroko prezio publikoa jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta haien bizikidetza-unitateak, sortzapenaren unean, gehieneko errenta bermatuaren halako 1,5 baino gehiagoko eta halako bi baino gutxiagoko diru-sarrerak jasotzen baditu.

5. Onuradunek edo erabiltzaileek 7,00 euroko prezio publikorako eskubidea izango dute, baldin eta haien bizikidetza-unitateak, sortzapenaren unean, gehieneko errenta bermatuaren bikoitza baino diru-sarrera handiagoak jasotzen baditu.

6. Prezio publiko horietan ez da sartzen Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta sortzapenaren unean indarrean dagoen zerga aplikatuko zaie.

6. artikulua. Zerbitzuaren alta eta baja

Adinekoentzako jantoki-zerbitzua erabiltzen hasteko, zerbitzuan alta emateko eskabidea aurkeztu beharko da Udaleko sarrera-erregistroan, inprimaki normalizatuaren bidez. Inprimaki horretan, nahi eta nahi ez, erabiltzaileak hileko ordainketak helbideratzeko banku-kontuaren zenbakia eta zerbitzua erabiltzeko ezarritako modua jaso beharko dira.

Aipatutako inprimakian, tarifa murriztua errentaren arabera aplikatzeko eskabidea sartu ahal izango da, eta udal-administrazioari baimena eman ahal izango zaio erabiltzaileen eta familia-unitateko gainerako kideen edo etxebizitzan bizi direnen datuak eskuratzeko. Horretarako, EAEko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE) erabiliko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta ondasun higiezinaren jabetzako zergaren datuak ezagutze aldera. Sarbidea baimentzen ez badu, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Erabiltzaileak edozein unetan eman ahal izango du baja zerbitzuan, edo hura erabiltzeko baldintzak aldatu.

7. artikulua. Sortzapena

Prezio publikoa menu bakoitzeko sortuko da.

Zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren arabera jakinarazi eta justifikatu diren otorduak (hutsegiteen kasuan) ez dira ordainduko.

8. artikulua. Likidazioa eta ordainketa

1. Udalak hileko likidazioak egingo ditu, fakturazio-aldian benetan egindako otorduen kopuruaren arabera.

2. Ordainketa banku-helbideratzearen bidez zein udalak onartutako edozein ordainketa-bidere bidez egingo da.

3. Ez ordaintzeak udal-bilketako araudia aplikatzea ekarriko du, eta zerbitzua azkentzeko kausa izan daiteke, adinekoentzako jantoki-zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua. Eguneratzea

Eranskin honetan ezarritako zenbatekoak aldatu ahal izango dira, 9. ordenantzan horiei dagozkien aldaketak eginez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa. Erreferentzia gisa jasotzen dira pentsiodun baten, biren eta hiruren bizikidetzak unitateetako (BU) gehieneko errenta bermaturako (GEB) 2026an eguneratutako zenbatekoak, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Aurrekoa alde batera utzi gabe eta artikulua honen lehen apartatuaren arabera, ekitaldi bakoitzean indarrean dauden zenbatekoak hartuko dira kontuan, ordenantza hau aldatu beharrik gabe.

ERRENTA-TARTEA	PREZIO PUBLIKOA EURO (BEZIK GABE)
Erreferentziako zenbatekora arte	3,00
Erreferentziako zenbatekoa halako 1 baino gehiago eta halako 1,5 arte	4,00
Erreferentziako zenbatekoa halako 1,5 eta halako 2 bitartean	6,00
Erreferentziako zenbatekoa halako bi baino gehiago	7,00

PREZIO PUBLIKO APLIKAGARRIA	3,00 EURO/MENUA (BEZIK GABE)	4,00 EURO/MENUA (BEZIK GABE)	6,00 EURO/MENUA (BEZIK GABE)	7,00 EURO/MENUA (BEZIK GABE)
GEHIENOKO ERRENTA BERMATUAREN BOLUMENA	GEB X 1 BAINO GUTXIAGO	GEB X 1 ETA X 1,5 ARTEAN	GEB X 1,5 ETA X 2 ARTEAN	GEB X 2 EDO GEHIAGO
BU 1 pentsiodun pertsona	Hilean 1.107,84 euro arte	1.107,85 1.661,76 euro hilean	1.661,77 2.215,67 euro hilean	2.215,68 euro hilean edo gehiago
BU 2 pentsiodun pertsona	Hilean 1.399,38 euro arte	1.399,39 2.099,07 euro hilean	2.099,08 2.798,75 euro hilean	2.798,76 euro hilean edo gehiago
BU 3 pentsiodun pertsona	Hilean 1.574,30 euro arte	1.574,31 2.361,45 euro hilean	2.361,46 3.148,60 euro hilean	3.148,61 euro hilean edo gehiago